

{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

Galerak diluitzea

Maiatzaren amaieran, Ukrainako Gobernuak jakinarazi zuen ez zuela ordainduko BPGren bilakaerari lotutako bonu-jaulkipen bati zegokion itzulketa. Horrek esan nahi du aktibo horiek kobraezinak bihurtu direla.

S&P kalifikazio-agentziak berehala D nota eman zion, aktibo espekulatiboari dagokiona, igorleak bere bete-beharrei erantzuteko duen gaitasun zalantzarriagatik.

Kontraintuitiboa dirudien arren, ordainketa-eten-dura gertatzen denean, espekulatzailerak, berandutze-egoeran dauden aktibo horiek kendu beharrean, gehiago erosten dute. Zergatik? Izan ere, jaulkitzaileak ezin duela ordaindu esaten duenean, prezioak behera egiten du -90 balio duenak 10 balio dezake, adibidez-, baina epe ertainean, litekeena da jaulkitzailearen eta hartzekodunen artean akordio bat lortzea, eta hartzekodunek beren inbertsioaren zati bat berreskuratzea: jaulkitzaileak lehen 90 balio zuenagatik 25 ordaintzen bukatzea, adibidez. Hasieran erosi ziren baloreek galerak batuko dituzte (hasieran ordaindu zuen prezioa (90 adibidean) ez da berreskuratuko adostutako azken prezioarekin (25)), baina 10etan erosi zirenekin, espekulatzailerak zerbait irabaziko du (15), azkenean 25 kobratuko baititu. Oro har, galerak ez dira hain handiak izango. Kobraezinak diren aktiboak erostea galera murrizteko bide bat da. Estrategia horri "galerak diluitzea" deitzen diote espekulatzailerak.

Donald Trumpek, espekulatzailerak onatzen dituen aldetik, bide hori hartu du Ukrainan. Ulertu du gerra galduta dagoela, baina Kieveko armada hornitzen jarraitu beharko duela, eta, beraz, inbertsioaren zati bat gutxienez meatze-baliabide gisa kobratuko duela ziurtatzea erabaki du. Hori gerra amaitzen denean bakarrik izango da posible. Horregatik, gastuak murrizteko eta galerak lehenbailehen diluitzeko, azkar negoziatzeko interesa agertu zuen. Baina Kieven beste era batera pentsatzen dute, han-hemenka agertzen diren datuak ikaragarriak diren arren.

Istanbuleko azken bileran, Errusiak esan zuen Ukrainari 6.000 soldadu ukrainarren gorpuak eman-go zizkiola kontraprestaziorik gabe. Hildako asko dira. 2022tik egindako truke guztiak zenbatuta, Kievek 913 gorpu itzuli dizkio Errusiari, eta Errusiak, berriz, 5.816. Horrek ez du esan nahi bi aldeek arteko bajearen proportzioa hori denik, faktore askok eragiten dutelako bildutako gorputz kopuruan. Hala ere, Moskuk ia 12.000 gorpu itzuli ditu, eta kopuru horrek erakusten du bajearen kopurua Kievek orain arte iradoki duena baino askoz handiagoa dela.

Duela egun batzuk, Volodymyr Boiko kazetari ukrainarrak jakinarazi zuen urteko lehen bost hilabeteetan 90.590 espediente ireki direla desertzioagatik (hilean 16.000 eta 18.000 artean), eta 2022ko otsailetik

Kobraezinak diren aktiboak erostea galera murrizteko bide bat da. Estrategia horri 'galerak diluitzea' deitzen diote espekulatzailerak

213.722 daude pilatuta; beraz, desertzioen %42 azken bost hilabeteetan gertatu da. Zelenskik esan zuen Ukrainak hilean 25.000 eta 27.000 soldadu artean mobilizatzen zituela. Bi zifrak gurutzatuta, azken bost hilabeteetan desertoreek kopuru horren bi heren batuko lituzkete. Bestalde, Ukrainako Gurutze Gorriak maiatzaren amaieran jakinarazi zuen senideen 371.000 jakinarazpenetatik aurrera desagertutako pertsonen 110.000 espediente irekita zituela. Jakina, denak ez dira hilda egongo, litekeena da haietako asko ezkutatuta egotea eta aurkitu nahi ez izatea, badaezpada ere. Nolanahi ere, datuak ikaragarriak dira eta hondamendia-ren tamaina erakusten dute.

Europak ez ditu datuak ikusi nahi. Starmerrek eta Macronek Merz konbentzitu dute gerrarekin jarraitzeko eta Alemaniak taurus misilekin hornituko du Kiev. Gasolina gehiago sutan. Galerak diluitu beharrean, europarrek gerraren aldeko apustuari eusten diote. •